

1. ZATIA: BALIO POROPOSAMENA

Zer behar edo arazo konpontzen dugu? Nekazaritza Lehen Sektorean duen presentzia handia dela eta, hainbat pestizida eta fertilizante erabiltzen dira produkzioa areagotzeko. Ingurumenerako kaltegarriak dira hauek eta gizakiak sortzen duen kutsaduraren ehuneko handi bat osatzen dute. Bestalde, hainbat jaki alferrik galtzen dira eta konposterako ez dira aprobetxatzen.

GURE PROPOSAMENA:

Beraz, honi aurre egiteko proposatu dugu nekazaritza sektorean balore ekologikoak sustatzen dituen elkarteak. Gure enpresan, metodo berritzaile baten bidez, hiri handietako biztanleen janarien hondakinak biltzen ditugu zabor espezializatu batzuetan eta horiek makina batean fertilizante naturalean bihurtzen ditugu. Balore ekologikoak sustatzen dituen elkarteak da gurea.

Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Gure enpresak dituen balio kualitatiboa handiak izango dira bezeroek gure produktuak erosteko arrazoia.

Alde batetik, berritasuna eskainiko dugu. Gure proposamena Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), ezarri ez den proiektu bat da eta fertilizante ekologikoen erabilera ez da komuna zenbait lekuetan. Gainera, hondakin organikoak ez dira oraindik fertilizante bihurtu makinaria baliatuz eta metodo ez-efizienteak erabili ohi dira.

Bestetik, eskuragarritasuna eskaintzen du gure enpresak. Komunitate lokal batean kokatuta egongo da eta nekazarieei zuzenean produktuak banatuko dizkiegu, horregaitik eskuragarria izango da beraientzat. Horretaz aparte, hiritarrentzako gertu dauden merkatu eta supermerkatuetan salduko ditugu produktu hauek.